

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea ibilgailuak espaloien gainetik sartzeko eta aparkalekua gordetzeko (pasabidea) ordaindu beharreko tasaren 2019ko zerga errolda**

Eginda dago udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu be-reziagatik (A epigrafea), alegia, ibilgailuak finken barrualdera espaloien gainetik sartzegatik eta horietan bide publikoan aparkalekua gordetzeagatik, ordaindu beharreko tasaren 2019ko errolda. Hortaz, honen bidez, errolda hori jendaurrean jarriko da hamabost egun baliodun- ez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, interesa dutenek aztertu eta, hala badagokio, egoki deritzeten alegazioak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onartutzat emango da, eta hasiera emango zaio kobratzeko aldiari.

#### I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2019ko urtarrilaren 29tik martxoaren 29ra.

B) Betearazte aldia: 2019ko martxoaren 30etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

#### II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako zergen Foru Arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze-ko errekurtsua jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2019ko urtarrilaren 10a

*Alkatea*

**MAIDER MURILLOTREVIÑO**